

#SCOUTSMSC

#LUZDELA PAZDEBELEN2024

#SOMOSLUZSOMOSCAMBIO

# SOMOS LUZ SOMOS CAMBIO

**LUZ DE LA PAZ DE BELÉN** DICIEMBRE2024  
**LLUZ DE LA PAZ DE BELÉN** AVIENTU2024  
**LLUM DE LA PAU DE BETLEM** DESEMEBRE2024  
**BELENEKO BAKEAREN ARGIA** ABENDUA2024  
**LUZ DA PAZ DE BELÉN** NADAL2024

## MOVIMIENTO SCOUT CATÓLICO

EDITA: Consejo General 2024 - 2027

EQUIPO DE PASTORAL: José Felipe Fernández, Encarnación María Gil Rodríguez

### AUTORES:

**Castores:** Encarnación María Gil Rodríguez

**Lobatos:** Elena Valiente Calleja, David Calleja Pérez, Ana María Vieites Puente

**Exploradores:** Elena Valiente Calleja, David Calleja Pérez, Ana María Vieites Puente

**Pioneros:** Elena Valiente Calleja, David Calleja Pérez, Ana María Vieites Puente

**Rutas:** Elena Valiente Calleja, David Calleja Pérez, Ana María Vieites Puente

**Adultos:** José Felipe Fernández López

**Itzulpena:** Miren Leanizbarrutia Biritxinaga-Eleizbarrutiko Euskera Zerbitzua

DISEÑO Y MAQUETACIÓN: David Franco Martínez



© ScoutsMSC 2024

Este material está destinado a su uso por parte de Scouts MSC y de todas sus asociaciones miembros.

### Reconocimiento

Se permite crear obras derivadas reconociendo siempre adecuadamente la autoría y cuya finalidad sea no comercial.

# BELENEKO BAKEAREN ARGIA

## SARRERA

Beste urte batez, Eskaut Mugimendu Katolikoak Belenen Jesus jaio zen haitzulotik gure eskuetara iritsiko den Bakearen Argiaren etorrera lantzeko lagungarriak aurkeztu ditu. Izan ere, hortxe, haitzulo txiki hartan, korta hartan piztu zen gizadiaren aldaketarik handiena. Jesusen bitartez eta berari esker sortzen den senidetasun unibertsalari esker, helarazi zaigun eta gure anai-arrebekin batera, maitasun etengabe berrizatuarekin bizitzera deitzen gaituen Jainkoaren maitasuna sorburutzat duen aldaketa.

Jakin badakigu bidegabekeriez, ezegonkortasunez eta gerrez jositako munduan bizi garena; ez da kontu berria, zoritxarrez. Eskaut mugimenduaren eta eguneroko jardunean helarazten ditugun balioen bitartez, "guk aurkitutako baldintzetan ez ezik hobeetan uzten" (Baden Powell) saia gaitzke. Horregatik, Argi gara, aldaketa gara goiburua aukeratu dugu 2024rako, gure etxera, gure mundura, elkartasun, bake eta berdintasun gehiago eramateko helburuarekin.

Lagungarriok, abenduan Belengo Bakearen Argia eta Abendualdia landu nahi dituzten eliz talde eta errealitateen gida bihur daitezke; dena dela, bakoitzak bere sormena garatu eta aldaketak sartzeko aukera izango du. Ohikoa denez, adin-multzoka banatuta daude.

Aurten, lau astetako bakoitza eskautontzat funtsezko den balio bati lotuta agertuko da. Abendualdiko asteari dagokion igandeko irakurgaia ere aurkeztuko da.

Esta es la distribución por semanas:

- Lehen astea: Jasangarritasuna.
- Bigarren astea: Berdintasuna.
- Hirugarren astea: Sentikortasuna.
- Laugarren astea: Aldaketa utopiarantz.

Lagungarriok baliagarri izan daitezela, eta bitarteko egoki, eliz talde eta errealitate guztietan egin ditzazuen jarduera guztietarako, argia zuen bizitzara, gizartera eta mundura eraman ahal izateko.

Ez ahaztu, Jesusen esan zuen bezala, gutariko bakoitza argi garela eta baita aldaketaren eragile ere.

#SCOUTSMSC

#LUZDELAPAZDEBELEN2024

#SOMOSLUZSOMOSCAMBIO

# SOMOS LUZ SOMOS CAMBIO

**LUZ DE LA PAZ DE BELÉN** DICIEMBRE2024  
**LLUZ DE LA PAZ DE BELÉN** AVIENTU2024  
**LLUM DE LA PAU DE BETLEM** DESEMEBRE2024  
**BELENEKO BAKEAREN ARGIA** ABENDUA2024  
**LUZ DA PAZ DE BELÉN** NADAL2024



## 6 - 8 URTE



# JASANGARRITASUNA

LEHEN ASTEA. 2024ko ABENDUAK 1

---

## Ebanjelioa

---

### Lukas 21, 25-28. 34-36

Aldi hartan, Jesusek esan zien bere ikasleei:

«Seinale handiak agertuko dira eguzkian, ilargian eta izarretan; lurrean, berriz, larri izango dira herriak, itsas orroaz eta olatuez izuturik. Eta munduari gainera datorkionaren ikaraz eta larriz, lur jota geldituko da jendea, ortzia dardarka ariko baita. Orduan, Gizonaren Semea hodei artean ahalmen eta aintzaz beterik etortzen ikusiko dute. Hau guztia gertatzen hastean, izan bihotz eta altxatu burua, laster baituzue zeuen askapena. Zabiltzate, bada, kontuz! Galdukeria, mozkorkeria eta bizitzako ardurak direla eta, ez bekizue gogoan motel, egun hura ustekabearen gainera eror ez dakizuen, sarea bezala eroriko baita munduan bizi diren guztien gainera. Egon erne eta erregutu uneoro, gertatuko diren horiei guztiei ihes egiteko eta Gizonaren Semearen aurrean zutik irauteko kemena izan dezazuen».

---

## Ipuina: "Logela"

---

Bart, lotara joateko ordua iritsi eta oheratuta nengoenean, nire logela perfektuaren inguruan pentsatzeari ekin nion. Panelak izango lituzke sabaian, argia eguzkitik hartu eta beti argiz beteta egon zedin. Leihoetan, koloretako arropa zaharrez egindako gortina handiak jarriko nituzke. Zorua, buztin egosiz egindako eta nire adiskideek margotuko lituzketen lauzak egongo lauzez estalita egongo litzateke. Hormak margolanez beteta egongo lirateke, haitzuloak bezala, abere eta landareen margoekin. Antzinako egurrezko mahaiak izango nituzke, birziklatzeko, berriz margotzeko, berridazteko paperez betetik. Jostailuek birziklatutako piezak izango lituzkete, guztiek erabili ahal izateko. Logelan jarriko nukeen guztian pentsatuz lokartu nintzen eta ahoan irribarrea nuela eta amets ederrak izanik egin nuen lo. Eta zuk, zer jarriko zenuke zure logela perfektuan?

---

### Jarduera: "Jaiotza jasangarria"

---

Jaiotza jasangarria sortu, hau da, jaiotzan eta inguruetan jasangarri bihurtuko luketen osagai guztiak ipiniz, esate baterako, eguzki-panelak kortako sabaian... Jaiotzan hobekuntzak egiteko ideiak batera jarri, horretarako elementuak eskuratu eta egitasmoan gauzatu.

---

### Otoitza

---

*Jainko Ahalguztiduna, unibertso osoan eta zure izaki txikienean zaudena.  
Guztia samurtasunez inguratzen duzun horrek, isuri gure gainera zure maitasunaren indarra bizia eta edertasuna zain ditzagun.  
Bete gaitzazu bakez, anai-arreba bezala, inori kalterik egin gabe, bizi gaitezen.*

*Amén.*

# BERDINTASUNA

BIGARREN ASTEA. 2024ko ABENDUAK 8

## Ebanjelioa

### Lukas 1, 26-38

Handik sei hilabetera, Jainkoak Gabriel aingerua bidali zuen Nazaret zeritzan Galileako herri batera, birjina batengana; birjinak Maria zuen izena, eta Jose zeritzan Daviden jatorriko gizon batekin ezkontzeko hitzemana zegoen.

Aingeruak, Mariarenean sarturik, esan zion:

— «Agur, Jainkoaren gogoko hori! Jauna zurekin».

Hitz hauek entzutean, ikaratu egin zen Maria eta agur horrek zer esan nahi ote zuen galdetzen zion bere buruari.

Aingeruak esan zion:

— «Ez beldurtu, Maria! Jainkoak gogoko zaitu. Hara, haurdun gertatuko zara, semea izango duzu eta Jesus ipiniko diozu izena. Handia izango da, Goi-goikoaren Seme deituko diote, eta bere aita Daviden tronua emango dio Jainko Jaunak. Israel herriko errege izango da betiko, eta beraren erregetzak ez du azkenik izango».

Mariak esan zion aingeruari:

— «Baina nola gerta daiteke hori, ez bainaiz gizon batekin bizi?».

Aingeruak erantzun zion:

— «Espiritu Santua etorriko da zuregana eta Goi-goikoaren indarrak hodeiak bezala estaliko zaitu; horregatik, zuregandik jaioko dena santua izango da eta Jainkoaren Seme deituko diote.

Begira, Elisabet zure lehengusina ere haurdun gertatu da bere zaharrean eta sei hilabeteko dago agorra omen zena; Jainkoarentzat ez baita ezer ezinezkorik».

Orduan, esan zuen Mariak:

— «Hona hemen Jaunaren mirabea. Gerta bekit zuk esan bezala».

Eta aingeruak utzi egin zuen.

## Ipuina: "Elisa eta Andres"

Bazen behin Eliza izeneko neskatoa. Ile luze eta beltza zuen, begi zabalak zituen eta aurpegian beti irribarre handia. Egun batean, Andres izeneko mutiko berria iritsi zen bere gelara. Mutiko oso garaia zen, ilehoria zen, begi urdinekin. Elisa eta Andres lagun in egin ziren. Oso gustuko zuten elkarrekin jolastea; gainera, zorionez, elkarrengandik


gertu bizi ziren eta, ondorioz, beti elkarrekin zeuden. Gehien gustatzen zitzaiena, ibaira joatea zen, eta beren etxeetatik ikusten zenez, bakarrik joateko moduan zeuden. Arratsalde honetan, nagusitan zientzialari izan nahi zuela kontatu zion Andresek Elisari; ibaiko ura analizatuko zuela, abereen inguruko guztia ikertuko zuela eta, etxera iritsi ondoren, Elisaren zain egongo zela urduri, solasean jardun eta elkarrekin afaria prestatzeko. Elisak harrিতuta entzun zituen hitzok, izan ere, berari esan ziotenez, neskak ez ziren lanera joaten eta berari etxean geratu, afaria prestatu eta senarrari itxarotea zegokion. “Zenbat buru, hainbat aburu”, hori zen gertatzen zena eta, horregatik Fran eta Tere adiskideengana jo zuten gai honi buruz galdezka. Andresen iritzi berekoak zirela esan zieten; aiton-amonen garaian, jendeak kontrakoa pentsatzen zuela, hau da, neskatoek, etxeko gauzetatik eta haurrak zaintzetik kanpo, ezin zutela ezer egin, baina gauzak aldatu egin direla eta denak berdinak zirela. Elisa poz-pozik jarri zen hori entzutean, bere ametsa argazkilari izatea eta izadiaren argazkiak egitea zelako eta horretarako ezinbesteko zuelako etxetik kanpo lan egitea. Egun horretatik aurrera, lau adiskideak ez ziren banandu eta elkarrekin irudikatu zuten, behin eta berriz, berdintasunez jantzitako mundua, non neskato eta mutikoek amestutako guztia gauzatzeko aukera izango zuketan.

---

*Jarduera: “Zuhaitz genealogikoa”*

---

Zuhaitzaren irudia bete gabe duen orri bana emango diegu beraiek beren senideen izenekin osa dezaten.



---

## Otoitza

---

*Jainko maitea, zure seme-alaba guztiak zeure antz eta irudiko sortu zenituena, gaur, bereziki, pertsonen arteko berdintasunaren alde eskatu nahi dizut, guztiok gizaki, guztiok zure seme eta alaba bagara ere, eta guztiok begiramena merezi badugu ere, munduko lagun askok eta askok bereizkeriak, indarkeria eta beren duintasunaren aurkako erasoak jasaten baititu. Jesukristo gure Jaun eta zure Semearen bitartez eskatzen dizugu.*

*Amen.*

# SENSITIKORTASUNA

HIRUGARREN ASTEA. 2024ko ABENDUAK 15

## Ebanjelioa

### Lukas 3, 10-18

Jendeak galdetzen zion Joani:

— «Zer egin behar dugu, bada?».

Hark erantzuten zien:

— «Bi soineko dituenak eman diezaiola bat jantzirik ez duenari, eta jatekoa duenak ere bana dezala».

Joan ziren zergalari batzuk ere bataiatzera eta galdetu zioten:

— «Maisu, zer egin behar dugu?».

Hark erantzun zien:

— «Ez kendu inori legezko dena baino gehiago».

Soldaduek ere galdetu zioten:

— «Eta guk, zer egin behar dugu?».

Joanek erantzun zien:

— «Ez atera inori dirurik gogorkeriaz, ezta gezurrezko salakuntzaz ere; konforma zaitetze daukazuen soldatarekin».

Herria zain-zain zegoen eta denak ari ziren pentsatzen Joan ez ote zen Mesias izango.

Joanek, ordea, denen aurrean esan zuen:

— «Nik urez bataiatzen zaituztet, baina badator ni baino ahaltsuago dena, eta ni ez naiz inor haren oinetakoen lokarriak askatzeko ere; horrek Espiritu Santuaz eta suz bataiatuko zaituzte. Eskuan du sardea garia garbitu eta alea bere mandioan jasotzeko; lastoa, berriz, inoiz itzaliko ez den sutan erreko du».

Honela eta beste burubide askoren bidez adierazten zion berri ona herriari.

## Ipuina: "Hartz-ama"

Kondairak dioenez, hartz zuri emeak hartz-kumeei begira daude etengabe, batik bat bi urte bete arte. Hartz-amak elurretan zulo handia egiten du, negua igarotzeko babeslekua egiteko. Babesleku horretan irudikatu nahi ditut, beren lehen urratsak emanez, istorioak entzunez eta etengabe jolasten. Gero, udaberrian, kanpora atera eta ehizatzen ikasten dute. Beti izango dela zainduko gaituen norbait erakusten digu, beste

behin ere izadiak, gu zaindu egin behar gaituztela, nagusitzean, geuk ere besteak zain dituzagun.

---

### Jarduera: "Pitufoak"

---

Partaide bakoitza pitufo bihurtuko da eta egokitu zaion pitufoaren jokaera (marmartia, haserretua, sentibera, alaia, lotsatia...) izango du. Amaieran, nola sentitu garen komentatuko dugu eta gainerakoek irudikatu dugun pitufoa zein zen asmatu duten ala ez jakinaraziko dute.

---

### Otoitza

---

*Jauna, gose naizenean, emaidazu jatekoa behar duen norbait.  
Egarri naizenean, emaidazu ura behar duen norbait.  
Hotz naizenean, emaidazu berotasuna behar duen norbait.  
Neure burua pobre ikusten dudanean, ipin ezazu nire ondoan behartsuren bat.  
Astirik ez dudanean, emaidazu nire minutuen premia duen norbait.  
Gogorik gabe nagoenean, emaidazu norbait adore berriak emateko.  
Besteek uler nazatela nahi dudanean, emaidazu nire ulermenaren premia duen norbait.  
Besteen zaintza behar dudanean, emaidazu norbait zain dezadan.  
Neure buruarengan pentsa dezadanean, jarrarazi nire arreta beste norbaitengan.  
Bakarrik neure buruarengan pentsa dezadanean, emaidazu beestea ikusteko sentsibilitatea.*

Amen.

*Kalkutako Santa Teresaren otoitzaren moldaketa.*

# ALDAKETA UTOPIARANTZ

LAUGARREN ASTEA. 2024ko ABENDUAK 22

---

## *Ebanjelioa*

---

### **Lukas 1, 39-45**

Handik egun batzuetara, Maria etxetik atera eta Judeako mendialdeko hiri batera joan zen arin-arin, eta, Zakariasen etxean sarturik, Elisabeti agur egin zion. Mariaren agurra entzun bezain laster, Elisabeti punpaka hasi zitzaion haurra sabelean. Une berean, Espiritu Santuaz beterik gelditu zen Elisabet, eta goraki esan zuen:

*«Bedeinkatua zu emakume guztien artean eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua! Nor naiz ni, nire Jaunaren ama ni ikustera etortzeko? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, pozez punpaka hasi zait haurra sabelean. Zorionekoa zu, Jaunak esan dizuna beteko dela sinetsi duzulako!»*

---

## *Paperezko itsasontzi txikiaren ipuina*

---


Bazen behin lemazain izan nahi zuen eltxoa. Itsasontzi txiki bat eraiki zuen intxaur-oskolaz eta plastilina-puskaz bete zuen. Zotza sartu eta paperezko banderaz apaindu zuen. Itsasontzi txiki hura amaitu eta urre-koloreko ezti-tantaz bete zuen, irletan, Hegoaldeko urrutiko itsasoetan bizi ziren adiskideei eramateko. Itsasoratu, eta ekaitz beltza etorri zitzaion gainera bat-batean. Ontzi txikia gora eta behera zebilen olatuetan. Eltxoak, beldur gabe, arraunean jarraitu zuen, abestia kantatzen zuen bitartean.

---

*Jarduera: "Paperezko itsasontzi txikiak"*

---

Itsasontziak egin paper birziklatuz. Ondoren, ontzi bakoitzean, gurari on bat idatzi. Txikiak egin daitezke, jaiotzan ipintzeko, edo handiak, lokalerako.




---

*Otoitza*

---

*Maria, Jesusen ama maitea, eskaria egin nahi dizugu: ez dezagula aldatzeko ilusiorik gal. Zurekin batera, mundu hobearen utopiarra hel gaitzela. Nire aldetik, onena egiten saiatzen naiz, kideekin konpartituz eta laster jaioko den zure Semeari abegi eginez. Maria, guztia hau ez dadila amets huts izan, alaitasun eta pozez beterik, argiz, kolorez eta bizitasunez beteriko munduan bizitzeko aukera izan dezagula. Jesukristo zure Semearen bitartez eskatzen dizugu.*

*Amen.*

#SCOUTSMSC

#LUZDELA PAZDEBELEN2024

#SOMOSLUZSOMOSCAMBIO

# SOMOS LUZ SOMOS CAMBIO

**LUZ DE LA PAZ DE BELÉN** DICIEMBRE2024  
**LLUZ DE LA PAZ DE BELÉN** AVIENTU2024  
**LLUM DE LA PAU DE BETLEM** DESEMEBRE2024  
**BELENEKO BAKEAREN ARGIA** ABENDUA2024  
**LUZ DA PAZ DE BELÉN** NADAL2024



# 9 - 11 URTE



# JASANGARRITASUNA

LEHEN ASTEA. 2024ko ABENDUAK 1

## Ebanjelioa

### Lukas 21, 25-28. 34-36

Aldi hartan, Jesusek esan zien bere ikasleei:

«Seinale handiak agertuko dira eguzkian, ilargian eta izarretan; lurrean, berriz, larri izango dira herriak, itsas orroaz eta olatuez izaturik. Eta munduari gainera datorkionaren ikaraz eta larriz, lur jota geldituko da jendea, ortzia dardarka ariko baita. Orduan, Gizonaren Semea hodei artean ahalmen eta aintzaz beterik etortzen ikusiko dute. Hau guztia gertatzen hastean, izan bihotz eta altxatu burua, laster baituzue zeuen askapena. Zabiltzate, bada, kontuz! Galdukeria, mozkorkeria eta bizitzako ardurak direla eta, ez bekizue gogoan motel, egun hura ustekabeen gainera eror ez dakizuen, sarea bezala eroriko baita munduan bizi diren guztien gainera. Egon erne eta erregutu uneoro, gertatuko diren horiei guztiei ihes egiteko eta Gizonaren Semearen aurrean zutik irauteko kemena izan dezazuen».

## Elezaharra: Eguzkia eta haizea

Egun batean, eguzkiak eta haizeak egundoko eztabaida izan zutela dio elezaharrak: besta baino ahaltsuago zela zioen batak nahiz besteak... Liskar hark zuen itxura eskasa ikusta, zeruetako kontzilioak esku-hartu zuen ahaltsuena zein zen erabakitzeke... Eta proba egin zuten bien artean zein zen ahaltsuena jakin ahal izateko. Proba eraginkorrago izan zedin, hiri zahar batean kalez kale zihoan kapadun gizona aukeratu zuten. Haizeak esan zuen:

- *Kapa kenduko diot eta zu baino indartsuago naizela erakutsiko dut.*

Baiezkoa eman zion eguzkiak. Gizonari begira jarri ziren biak eta lehen probari ekin zioten... Haizea putz egiten hasi zen, ufada gero eta handiagoak jaurtiz, horrelako ufada batek kapa berehala airean zehar jaurtikiko zuelakoan. Baina gizonak, kapa kendu ordez, eta haizearen harridurarako, gogor heldu zion, izugarrizko hotza zuelako. Garaituta, haizeak bere porrota onartu egin zuen eta eguzkiari eman zion txanda. Irribarretsu ekin zion probari, ezertan hasi baino lehen, gizonari begiratu. Honen urrats guztiak aztertu eta, bere burua prest ikusi zuenean, jarduerari ekin zion... Bere tenperatura igoarazi zuen lurra bero zedin. Minutu gutxiren buruan, gizona izerditan zegoen eta, ondoren, kapa erantsi zuen.

- Eguzkiak, garaile, haizeari begiratu eta esan zion: Ikusi duzu, gehiago lor daiteke pazientzia eta konbentzitzeaz indarkeria edo indar basatiaz baino.

---

### Jarduera "Hazitegi-tailerra"

---

Azalpenak: Ingurumenaren zaintza eta Otsokoen erantzukizuna lantzeko eta sustatzeko, birziklatze-tailerra garatuko dugu: hazitegiak sortu, komuneko paper-biribilkiaz baliatuz. Apaindu eta lokaletan utz ditzakete, astero-astero zaintzeko eta nola hazten diren ikusteko.

<https://www.youtube.com/watch?v=JJBCgD-gB6M&t=8s>

Lagungarriak:

- Komuneko paper-biribilkiak
- Lurra
- Haziak
- Errotuladoreak/apaintzeko margoak

Gogoeta 'Kraalarentzat': "Sortzen dihardugun hazitegia, jasangarritasunari lotuta dugun erantzukizun eta konpromisoaren sinbolo da. Gure landareen hazkundez arduratzen garen bezala, planetaz ere arduratu egin behar dugu, gure atzetik datozen belaunaldiek osasunez eta biziz beteriko munduaz goza dezaten. Jesusek geure buruaz gainera, geure ardurapean dagoen munduaz arduratzeko eta geure burua zein ingurua zaintzeko irakaspenak ematen dizkigu. Lurraren alde maitasun eta erantzukizunez jardunez erantzun diezaiozun bere deiari eta guztiontzako mundu hobea eraiki dezagun".

---

### Otoitza Kreazioaren alde

---

Jauna, unibertsoaren Egilea, eskerrik asko Lurraren edertasunagatik eta izadiaren oparotasunagatik. Zaintzaile eta arduradun izan gaitzela, maitasunez zain dezagula landare eta abere bakoitza eta gure ingurua babes dezagula. Emaiguzu jakinduria zuzentasunez esku-hartzeko eta indarra zure kreazioa zaintzeko gure atzetik datozen belaunaldiak bizi eta itxaropenez betetako munduan bizi daitezen.

Amén.

# BERDINTASUNA

BIGARREN ASTEA. 2024ko ABENDUAK 8

## Ebanjelioa

### Lukas 1, 26-38

Handik sei hilabetera, Jainkoak Gabriel aingerua bidali zuen Nazaret zeritzan Galileako herri batera, birjina batengana; birjinak Maria zuen izena, eta Jose zeritzan Daviden jatorriko gizon batekin ezkontzeko hitzemana zegoen.

Aingeruak, Mariarenean sarturik, esan zion:

— «Agur, Jainkoaren gogoko hori! Jauna zurekin».

Hitz hauek entzutean, ikaratu egin zen Maria eta agur horrek zer esan nahi ote zuen galdetzen zion bere buruari.

Aingeruak esan zion:

— «Ez beldurtu, Maria! Jainkoak gogoko zaitu. Hara, haurdun gertatuko zara, semea izango duzu eta Jesus ipiniko diozu izena. Handia izango da, Goi-goikoaren Seme deituko diote, eta bere aita Daviden tronua emango dio Jainko Jaunak. Israel herriko errege izango da betiko, eta beraren erregetzak ez du azkenik izango».

Mariak esan zion aingeruari:

— «Baina nola gerta daiteke hori, ez bainaiz gizon batekin bizi?».

Aingeruak erantzun zion:

— «Espiritu Santua etorriko da zuregana eta Goi-goikoaren indarrak hodeiak bezala estaliko zaitu; horregatik, zuregandik jaioko dena santua izango da eta Jainkoaren Seme deituko diote.

Begira, Elisabet zure lehengusina ere haurdun gertatu da bere zaharrear eta sei hilabeteko dago agorra omen zena; Jainkoarentzat ez baita ezer ezinezkorik».

Orduan, esan zuen Mariak:

— «Hona hemen Jaunaren mirabea. Gerta bekit zuk esan bezala».

Eta aingeruak utzi egin zuen.

---

### *Ipuina: Elefante Kateatua*

---

Txikitan, oso gustuko nituen zirkuak eta, zirkuetan, abereak ziren gehien gustatzen zitzaizkidanak. Egia esan, elefanteak atentzioa ematen zidan, eta gero jakin nuenez, gauza bera gertatzen zitzairen beste batzuei ere. Ikuskizunean, aberetzar hark bere izugarritzko tamaina, pisua eta indarra erakusten zituen... Baina emanaldia bukatu eta berriz eszenatokira itzuli arte, elefantea kateatuta egoten zen, hanketako bat estutzen zion eta lurrean sartutako taket bati lotutako kateaz. Hala ere, taketa lurrean zentimetro eskas batzuk sartutako egur-puska baizik ez zen eta nahiz eta katea lodi eta gogorra izan, ez zirudien oztopo handiegi zuhaitza errotik ateratzeko gai zen abere harentzat. Hau da, nahi izango balu, taketa atera eta erraz ihes egiteko moduan legoke. Orduan, zergatik dago han? Zer dela-eta ez du ihes egiten? Bost edo sei urte nituenean, nagusien jakinduria bilatu eta galdera egin nion maisu, guraso edo osabaren bati elefantearen misterioaz. Elefantea hezita zegoela eta horregatik ez zuela ihes egiten esan zidan norbaitek. Orduan, berez sortu zitzaidan galdera: Hezita badago, zergatik lotzen dute katez? Ez dut gogoratzen erantzun koherente bakar bat ere. Denboraren buruan, ahaztu egin nuen elefantearen eta taketaren istorioa... Galdera bera egin zuen beste askok ere era horrelako norbaitekin elkartzen nintzenean zetorkidan gogora kontu hura... Duela urte batzuk, nire zorionerako, erantzuna aurkitzeko bezain jakintsu zen norbaitekin topo egin nuen: Zirkuko elefanteak ez du ihes egiten txikitatik antzeko taket bati lotuta egon delako. Begiak itxi eta elefante txikia taketari lotuta irudikatu nuen. Seguruenik une hartan elefante txikia tiraka eta bultzaka arituko zen, izerdi-patsetan, askatu nahirik. Eta eginahalak eginda ere, ez zuen lortuko, gogor zegoelako beretzat. Akituta, lokartu egingo zela esango nuke eta biharamunean, eta hurrengo egunean, eta hurrengoan..., saiatuko zela..., egun baten, bere historiako zorigaitzoko egunean, bere ezintasuna onartu, amore eman eta betirako kateari lotuta geratu zen arte. Zirkuan ikusten dugun abere itzel eta ahaltsuak ez du ihes egiten, bere ustez -gizagaixoa- EZIN DUELAKO. Ez du bere ezintasunaren, jaioberritan sentitu zuen ezintasunaren erregistrorik. Eta txarrena, inoiz ez duela berriz zalantzan jarri erregistro hori. Inoiz..., inoiz ez zuen berriz bere indarra probatu...

---

*Jarduera: "Kortozko aingerutxoak eguberri-zuhaitzerako"*

---

Aste honetan, aingerua egingo dugu, Gabrielelek Mariari egin zion Deia kontatzen baitu ebanjelioak.



Azken gogoeta:

*Adibidez adieraziko dugu guztion abiapuntua elementu bakun eta berdina dela; Jainkoaren laguntzaz osatzen gara, elementu bakar eta desberdin bihurtuz. Aingerutxoak Eguberri-zuhaitzean zintzilikatuko ditugu hori kontuan izateko.*

---

*Otoitza*

---

*Jainko maitea,*

*Gabriel aingeruak argia eta mezua Mariari eraman zizkion bezala Jesusen mezua iragartzeko, geuri ere argi beraz argi egiteko eskatu nahi dizugu. Argi horrek lagun diezagula guztiok berdinak garela eta, aldi berean, bakoitzak zerbait berezia duela ikusten, atzean utz ditzagun aurreiritziak eta elkarrekin maitasun eta adiskidetasunez jardun dezagun, zure laguntzarekin gure helburuak lortu ahal izateko.*

*Amen.*

# SENSITIKORTASUNA

HIRUGARREN ASTEA. 2024ko ABENDUAK 15

## Ebanjelioa

### Lukas 3, 10-18

Jendeak galdetzen zion Joani:

— «Zer egin behar dugu, bada?».

Hark erantzuten zien:

— «Bi soineko dituenak eman diezaiola bat jantzirik ez duenari, eta jatekoa duenak ere bana dezala».

Joan ziren zergalari batzuk ere bataiatzera eta galdetu zioten:

— «Maisu, zer egin behar dugu?».

Hark erantzun zien:

— «Ez kendu inori legezko dena baino gehiago».

Soldaduek ere galdetu zioten:

— «Eta guk, zer egin behar dugu?».

Joanek erantzun zien:

— «Ez atera inori dirurik gogorkeriaz, ezta gezurrezko salakuntzaz ere; konforma zaitetze daukazuen soldatarekin».

Herria zain-zain zegoen eta denak ari ziren pentsatzen Joan ez ote zen Mesias izango.

Joanek, ordea, denen aurrean esan zuen:

— «Nik urez bataiatzen zaituztet, baina badator ni baino ahaltsuago dena, eta ni ez naiz inor haren oinetakoen lokarriak askatzeko ere; horrek Espiritu Santuaz eta suz bataiatuko zaituzte. Eskuan du sardea garia garbitu eta alea bere mandioan jasotzeko; lastoa, berriz, inoiz itzaliko ez den sutan erreko du».

Honela eta beste burubide askoren bidez adierazten zion berri ona herriari.

## Ipuina: "Gustuko dudan jendea"

Gustuko dut hunkitu egiten den jendea, bultzatu beharrik ez duena, gauzak egiteko esan beharrik ez duena, zer egin behar duen dakiena eta egin egiten duena. Bere ametsak lantzen dituen jendea, amets horiek bere errealitatea hartzen duten arte. Bere ekintzen ondorioak bere egiteko gauza den jendea dut gustuko, ziur duena ziur ez duenagatik arriskatu eta ametsa lortzen saiatzen dena, zentzuzko aholkuetatik ihes egin eta konponbideak aita Jainkoaren eskuetan uzten dituen.

Gustuko dut beretarrekin eta bere buruarekin zintzoa den jendea, egun berria, bizitzako gauza onak eskertzen dituen, orduz ordu aldarte onez bizi dena, bere onena eman eta bizirik egoteaz, irribarreak oparitzeaz, bere eskuak eskaintzeaz eta eskuzabaltasunez, musu-truk laguntzeaz esker ona adieraziz.

Gustuko dut era konstruktiboan, aurrez aurre baina min eman eta zauritu gabe kritikatzeko nauen jendea.

Kontu handiz jokatzeko duen jendea.

Gustuko dut zuzentasun-sena duen jendea.

Horiek deitzen ditut adiskide.

Pozaren garrantziaz jabetu eta hori hots egiten duen jendea dut gustuko. Txantxaz txantxa, bizitza umorez hartzen irakasten diguna.

Ume izateari inoiz uko egiten ez dion jendea.

Bere indarra kutsatu egiten duen jendea dut gustuko.

Gustuko dut jende zintzo eta leiala, edozeinen erabakiei arrazoizko argudioekin aurka egiteko gauza dena.

Gustuko dut jende leial eta saiatua, helburu eta ideiak lortzeari dagokionez etsitzen ez duena.

Irizpidea duen jendea dut gustuko, huts egin duela edo zerbait ez dakiela aitortzeaz lotsatzen ez dena. Bere akatsak onartzeko gauza den eta berriz ez hutsegiten benetan saiatzen den jendea.

Zoritxarren aurka borrokatzen duen jendea.

Gustuko dut konponbideak bilatzen dituen jendea.

Gustuko dut pentsatzeko, bere baitan hausnartzeko gauza den jendea. Jendea gizarte estereotipoaren edo bere distiraren arabera baloratzen ez duena. Epaitzen ez duen eta besteek epaitzea ere gustuko ez duen jendea.

Nortasuna duen jendea dut gustuko.

Gizakiaren akatsik handiena, bihotzetik ateratzen ez dena burutik ateratzea dela ulertzeko gauza den jendea dut gustuko

Sentikortasuna, adorea, elkartasuna, ontasuna, begiramena, lasaitasuna, balioak, poztasuna, apaltasuna, fedea, zorientasuna, zuhurtzia, konfiantza, itxaropena, esker ona, jakituria, ametsak, damutzea eta besteenganako eta norbere buruarenganako maitasuna funtsezko dira JENDE deitzeko.

Horrelako jendearekin, edozertara konprometitzen naiz nire bizitza osorako, nire ondoan izateak bera nahiko sari baita niretzat.

---

### Jarduera: "Zirraren mapa"

---

Hasteko, otsokoak zirkuluan jarriko dira. Gaur landuko dugun gaia garrantzitsua dela eango diegu: gainerako sentimenduak ulertu eta horien inguruan sentiberatasuna biztu. Azalpen hauek eman daitezke:

*"Gaur, era bateko edo beste zirraren aurrean nola sentitzen garen edo askotariko sentipen horien aurrean nola lagun dezakegun aztertuko dugu. Sentikortasuna, besteek*

*sentitzen dutenaz jabetzea eta beren zirrarak ulertzen saiatzea da. Horri esker, adiskide eta kide hobeak izan gaitzke”.*

Paper edo kartulina handi bat zabalduko dugu lurrian edo mahai baten gainean. Erdian, zirkulu handi bat marraztu eta hainbat ataletan banatuko dugu, pastel bat balitz bezala; guztiok izaten dugun zirrara bat -poztasuna, goibeltasuna, haserrea, harridura, beldurra, e.a.- idatzi edo marraztuko dugu atal horietako bakoitzean.

Banatu otsokoei markatzaile edo koloretako arkatzak eta aukera dezala bakoitzak mapako zirrara bat. Mapan dagokion atalean, zirrara horren inguruko zerbait marraztu edo idatz dezatela. Esate baterako, aurpegitxo irribarretsua marraz dezakete poztasuna irudikatzen eta hodei iluna goibeltasuna agertzeko.

Guztiok mapa apaindu ondoren, irudikatu duten zirrara bizi izan duten egoeraren bat aipatuko dute. Honelako galderak egin laguntzeko:

- *“Noiz sentitu zara pozik? Zergatik?”*
- *“Noiz sentitu zinen triste? Nola eragin zizun egoera horrek?”*

Zirrarei lotutako egoera horiek batera jarri ondoren, horrelako egoera batean dagoen norbaiti nola lagun diezaioketen kontu dezatela otsokoek. Banatu post-itsak eta idatz dezatela nola izan daitezkeen sentibera eta nola lagun dezaketen norbait egoera horretan. Gero, dagokion zirraren ondoan jarriko dute ideia hori...

Otsokoak berriz zirkuluan jarri eta ikasitakoa berrikusi labur-labur. *“Gaur, zirraren mapa osatu dugu gure eta besteen zirrarak hobeto ezagutzeko. Denok ditugu sentimenduak, batzuetan, barru-barruan egon badaitezke ere. Sentibera izan eta besteak nola sentitzen diren ulertuz, lagun diezaiekegu eta adiskide hobe izan gaitzke”.*

---

### Otoitza

---

*Jauna, guztion Kreatzailea, eskerrik asko zure kreazioaren aniztasunagatik. Laguniezaguzu pertsona bakoitza berdin lez ikusten, bere itxurari, trebetasunei edo inguruabarrei jaramon egin gabe. Irakatsiezaguzu zuzen eta adeitsu izaten, guztiak begirunez eta maitasunez hartzen, eta bakar egiten gaituzten aldeak baloratzen. Gida gaitzazu adiskide eta kide onak izan gaitzen, elkarrekin orekan eta bakean jardunez, berdintasunez betetako mundua eraikitzen. Gure eskaut taldean, otsoko bakoitzak, baloratu eta maitatu egiten dugula senti dezala eta elkarrekin jakituria eta ontasunean haz gaitzela.*

Amen.

# ALDAKETA UTOPIARANTZ

LAUGARREN ASTEA. 2024ko ABENDUAK 22

## Ebanjelioa

### Lukas 1, 39-45

Handik egun batzuetara, Maria etxetik atera eta Judeako mendialdeko hiri batera joan zen arin-arin, eta, Zakariasen etxean sarturik, Elisabeti agur egin zion. Mariaren agurra entzun bezain laster, Elisabeti punpaka hasi zitzaion haurra sabelean. Une berean, Espiritu Santuaz beterik gelditu zen Elisabet, eta goraki esan zuen:

«Bedeinkatua zu emakume guztien artean eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua! Nor naiz ni, nire Jaunaren ama ni ikustera etortzeko? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, pozez punpaka hasi zait haurra sabelean. Zorionekoa zu, Jaunak esan dizuna beteko dela sinetsi duzulako!»

## Ipuina: "Benetako bakea"

Behin batean, lehiaketa antolatu zen, benetako bakea koadroan islatzeko gauza zen artista aukeratzeko. Ekitaldi garrantzitsua zenez, mundu osoko hainbat lekutako margolari asko bildu zen. Guztira, ehun artelanetik gora aurkeztu zen, bake eta soseguzko benetako une hori islatu nahirik. Hondartzatik edo mendi-tontorretik ikusitako ilunabar ederrak agertzen ziren batzuetan, eguzkiaren argiaz, loreez edo elurrez ziprztindutako paisaia zoragarriak besteetan... Baina, azken aldera, artelan bitxi samarra iritsi zen, guztiz kontrakoa irudikatuz: itsasoak amorrutako bizitzaren kolpatzen zituen harkaitzak eta hodeietatik tximistak ateratzen ziren, uretaraino iritsiz. Begirune handia zioten maisu budista bati erakutsi zizkioten lanak, bera arduratuko baitzen irabazlea aukeratzeko. Kontua da maisu honek, lanak, guzti-guztiak, jaso ahala, atzera botatzen zituela.

- Baina, ez dago besterik?, ez duzue bestelako lanik? Hauek ez dute balio.
- Ez, maisu, ekarri dizkizugu lehiaketara aurkeztutako lan guztiak... Bueno, bada beste lan bat, baina ez dizugu ekarri, egilea nahastatu egin delako eta ez duelako eskatutako gaia landu.

- *Aurkeztu bada, gainerakoek izan dituzten aukera berak izan behar ditu honek ere. Ekar ezazue... Handik gutxira iritsi ziren margolanarekin.*
- *Hona hemen. Ikusten duzunez, benetako bakearen kontrako eszenatokia agertzen du. Maisuak lana aztertu, kontu handiz behatu eta, bat-batean, aurpegian irribarre zabala agertu zitzaion.*
- *Hona hemen irabazlea! -oihukatu zuen.*
- *Nola diozu? -erantzun zuten guztiak sinetsi ezinik.*
- *Bai, bai, begira, ikusi zuhaitz horren adarrean, bere habian ekaitzari begira patxadaz dagoen txoritxoak. Harrituta gertatu ziren guztiak xehetasun hura ikustean.*
- *Bakea ez da zaratarik, arazorik, haizerik, euririk... gabeko lekuan egotea. Bakea, benetako bakea, ekaitzaren erdian, txoria bezala egotea da, patxadaz eta soseguz. Horixe da, hain zuzen ere, benetako bakearen esanahia.*

---

### *Jarduera: "Utopia-izarrak"*

---

Jarduera honetan, dagoeneko beraiekin ez dauden eta denok oreka, bake eta zorientasunean bizi izango garen zeruan besoak zabalik zain dituzten pertsonengan pentsatuko dute otsokoek. Horretarako, zirkuluan eseriko dira leku lasai batean eta izar bana emango zaie. Lasai daitezenean, beraientzat garrantzitsua den eta dagoeneko ondoan ez dagoen norbaitengan pentsa dezatela, izan be, garrantzitsua da horiengan pentsatzea, beraiei buruz ditugun oroitzapenek maitasun eta itxaropenez betetzen gaituztelako. Izena izarrean idatzi ondoren, altxatu eta muralean (horman, paper jarraituan...) itsatsiko dute. Horixe izango da oroitzapenen lekua eta hortxe egongo dira senide eta lagun kutunak beraien zain. Amaitzeko, zera gogoratuko diegu: izar horiek delako izar horiekiko lotura berezia irudikatzen dutela eta, nahiz eta fisikoki beraiekin ez egon, beti izango direlako beren bihotzetan.

---

### *Otoitza*

---

*Jainko maitea, gaur maitasunez gogoratzen ditugu gure artean ez daudenak. Badakigu zeruan direna eta besoak zabalik zain ditugula, eta horrek itxaropena eta kontsolamendua dakarkigu. Emaiguzu sendotasuna aurrera egiteko, gure senide eta lagun kutunak gure bihotzean bizi direla eta egunen batean, beraiekin elkartuko garela jakinda. Eskerrik asko maitasun eta oroitzapenengatik, eta zure betiko besarkadan berriz ere guztiok batera egongo gareneko itxaropenagatik.*

*Amen.*

#SCOUTSMSC

#LUZDELAPAZDEBELEN2024

#SOMOSLUZSOMOSCAMBIO

# SOMOS LUZ SOMOS CAMBIO

**LUZ DE LA PAZ DE BELÉN** DICIEMBRE2024  
**LLUZ DE LA PAZ DE BELÉN** AVIENTU2024  
**LLUM DE LA PAU DE BETLEM** DESEMEBRE2024  
**BELENEKO BAKEAREN ARGIA** ABENDUA2024  
**LUZ DA PAZ DE BELÉN** NADAL2024



# 12 - 14 URTE



# JASANGARRITASUNA

LEHEN ASTEA. 2024ko ABENDUAK 1

## Ebanjelioa

### Lukas 21, 25-28. 34-36

Aldi hartan, Jesusek esan zien bere ikasleei:

«Seinale handiak agertuko dira eguzkian, ilargian eta izarretan; lurrean, berriz, larri izango dira herriak, itsas orroaz eta olatuez izaturik. Eta munduari gainera datorkionaren ikaraz eta larriz, lur jota geldituko da jendea, ortzia dardarka ariko baita. Orduan, Gizonaren Semea hodei artean ahalmen eta aintzaz beterik etortzen ikusiko dute. Hau guztia gertatzen hastean, izan bihotz eta altxatu burua, laster baituzue zeuen askapena. Zabiltzate, bada, kontuz! Galdukeria, mozkorkeria eta bizitzako ardurak direla eta, ez bekizue gogoan motel, egun hura ustekabeen gainera eror ez dakizuen, sarea bezala eroriko baita munduan bizi diren guztien gainera. Egon erne eta erregutu uneoro, gertatuko diren horiei guztiei ihes egiteko eta Gizonaren Semearen aurrean zutik irauteko kemena izan dezazuen».

## Ipuina: Ibai tristeak. Afrikako hitzak

Bazen behin "ur mendia" izeneko mendi bat, bere magaletan bi ibai handi zituelako. Neska-mutilek ondo pasa zuten bainatzen. Jendeak ibaietatik garbitu eta edaten zuen eta dena zen zoriona, urak herri haiei bizia ematen zielako. Halakoa zen jendearen umore ona, non goiz batean lastozko etxe berriak egitea erabaki zuten, beste leku batzuetako jendea ibai ertzean egun batzuk egon zedin. Eta hala izan zen. Hozteko, garbitzeko eta edateko ur fresko eta garbi bila zebiltzan familiez bete ziren laster hamar etxe eder eraiki zituzten. Hainbeste edan zuten non ibaia lehortzen hasi zen. Hodeiak, kezkatuta, euri tantak botatzen hasi ziren inguruaren gainean ibaiak suspertzen laguntzeko. Hainbeste euri egin zuen non lastozko etxe batzuk suntsitu baitziren. Gizonak oso haserretu ziren. Hainbeste, ezen suntsitutako etxeetako lasto eta egur guztia bildu eta ibaira botatzea erabaki zuten. Emakumeek oihukatu zuten:

"Ez egin! Ez al duzu ikusten euria opari bat zela?"

Baina gizonak ez zuten entzun eta ibaiak lastoz, egurrez eta zaborrez bete zituzten. Denbora pasa ahala, ibaiak triste jarri ziren. Jada inork ez zuen bere uretan jolasten eta jendea ezin zen edatera hurbildu. Hain triste jarri ziren, non desagertuz amaitu

zuten. Herritik zenbait kilometrotara bakarrik agertu ziren berriro, oso lotsati, ura emateko.

Emakumeek ez zieten esan nahi gizonei ura non zegoen, berriro kutsatuko ote zuten beldurrez. Harrezkero, leku horretan, emakumeak uraren eta naturaren zaindariak dira, beren izakiak gerta daitezkeen gaitzetatik babesten..

---

### Jarduera

---

Hiru jarduera egingo dira "gymkhana" erara. Esploratzaileek proba guztiak egingo dituzte:

1. Birziklatzea: errelebo-lasterketa egingo da; esploratzaileek askotariko zabor-hondarrak bereizi egin beharko dituzte poltsa desberdinetan, zabor bakoitza nora bota erabakiz. Bi aukera daude proba egiteko: hondakinen artean aukeratu edo inguruko zaborra batu eta taldean gogoeta egiteko aprobetxatu.
2. Energia: Zer egingo zenuke egoera honetan? Demagun egun batez ez duzula ingongo energiarik zure etxe/ikastetxean: nola igaroko zenuke eguna argindarririk jadedesteko aukerarik gabe? Imajinatu egun osoa, ohetik altxatzen zarenetik oheratzen zaren arte... Solasean jardun gelakideekin kontu horri buruz.
3. Konpromisoa: idatzi paperean esploratzaile bezala eguneroko bizitzan munduaren alde egin dezakezun konpromisoa. Konpromisoak bistan utz daitezke base/lokaletan (potoan, kutxan, horman...), jardueretan ikus ditzaten eta arduraz joka dezaten hartutako konpromisoa betetzeko.

Hirugarrena, azkenean egitea gomendatzen da, azken gogoetan (otoitza) horretaz baliatzeko.

---

### Oración

---

*Bihotz-berritzea ez da benetakoa gure munduaren zaintzan eragin zuzenik ez badu. Eragin horren oinarria ekintza txikiak dira, lagun askoren iraunkortasun eta uste sendoaren eraginez biderkatuta aldaketa handiak eragiteko gauza diren ekintza txikiak. Esate baterako, alferrik piztuta dagoen argia itzaltzea edo antzeko gauzak erraz egin ditzakegu. Nahikoa da horrelako zerbait egiten hastea, ohiko bihurtzea eta, azkenean, naturaltasun osoz egingo dugu eta ekintza hori guztiz eraginkor bihurtuko da. Jaun Ona, egunaren amaieran, bidali zure argia, alda gaitzan eta gure anai-arreben eta harrera egin digun lurraren zerbitzari izan gaitezen, geure burua beren esanetara jarritz beraiengan eraginkortasun osoa izan dezaketen ekintza txikien bidez.*

*Jesukristo gure Jaunaren bitartez.*

*Amen.*

*Gure Aita. Amen.*

# BERDINTASUNA

BIGARREN ASTEA. 2024ko ABENDUAK 8

## Ebanjelioa

### Lukas 1, 26-38

Handik sei hilabetera, Jainkoak Gabriel aingerua bidali zuen Nazaret zeritzan Galileako herri batera, birjina batengana; birjinak Maria zuen izena, eta Jose zeritzan Daviden jatorriko gizon batekin ezkontzeko hitzemana zegoen.

Aingeruak, Mariarenean sarturik, esan zion:

— «Agur, Jainkoaren gogoko hori! Jauna zurekin».

Hitz hauek entzutean, ikaratu egin zen Maria eta agur horrek zer esan nahi ote zuen galdetzen zion bere buruari.

Aingeruak esan zion:

— «Ez beldurtu, Maria! Jainkoak gogoko zaitu. Hara, haurdun gertatuko zara, semea izango duzu eta Jesus ipiniko diozu izena. Handia izango da, Goi-goikoaren Seme deituko diote, eta bere aita Daviden tronua emango dio Jainko Jaunak. Israel herriko errege izango da betiko, eta beraren erregetzak ez du azkenik izango».

Mariak esan zion aingeruari:

— «Baina nola gerta daiteke hori, ez bainaiz gizon batekin bizi?».

Aingeruak erantzun zion:

— «Espiritu Santua etorriko da zuregana eta Goi-goikoaren indarrak hodeiak bezala estaliko zaitu; horregatik, zuregandik jaioko dena santua izango da eta Jainkoaren Seme deituko diote.

Begira, Elisabet zure lehengusina ere haurdun gertatu da bere zaharrear eta sei hilabeteko dago agorra omen zena; Jainkoarentzat ez baita ezer ezinezkorik».

Orduan, esan zuen Mariak:

— «Hona hemen Jaunaren mirabea. Gerta bekit zuk esan bezala».

Eta aingeruak utzi egin zuen.

## Ipuina: Nahi dut

Epaitu gabe, entzun nazazula nahi dut.  
Aholkurik eman gabe, iritzia eman dezazula nahi dut.  
Ezer eskatu gabe, nitaz fida zaitetzela nahi dut.

Ito gabe, besarka nazazula nahi dut.  
Bultzatu gabe, adore eman diezadazula nahi dut.  
Nire kargu egin gabe, eutsi nazazula nahi dut.  
Gezurrik gabe babes nazazula nahi dut.

Nigatik erabakitzen saiatu gabe, lagun nazazula nahi dut.  
 Ni ezereztu gabe, zain nazazula nahi dut.  
 Zure gauzak nire gainera bota gabe, begira iezadazudala nahi dut.

Nire lekua hartu gabe, hurbil zaitezela nahi dut.  
 Niregandik gehien atsekabetzen gauzak ezagut ditzazula nahi dut,  
 onar ditzazula eta ez zaitezela aldatzen saiatu.  
 Gaur zeure esanetara naukazula jakin dezazula nahi dut.

---

## Jarduera

---

Lagungarriak:

- Post-itak ezaugarriekin.

*Aste honetan, berdintasunaren gaia landuko dugu 'rol'-jokoaren bidez. Horretarako 12 esploratzailez osaturiko taldeak egingo ditugu. Taldekide bakoitzak post-it bat izango du bekokian ezaugarri batekin, esate baterako, islamiarra, emakumea, ahalmen-urritasun fisikoa duen pertsona, gizon nagusia, lodi dagoen pertsona, bizilekurik ez duen pertsona, homosexuala, errusiar doinua duen pertsona, gaztea, asiarra, transgenero pertsona, buruko gaixotasuna duen pertsona, e.a.*

*Norberak ezin du bere ezaugarria zein den jakin, baina gainerakoek horren arabera zuzenduko zaizkio. Bat ipiniko da erdian eta gainerakoek gizarteak hartuko lukeen bezala hartuko dute. Gero, bere pertsonaiari buruzko galdera egingo dute eta, azkenik, aurrean duten pertsonaren ezaugarriari buruzko zerbait esan.*

*Ariketa seriotasunez egingo dute, barre egin gabe, jaurtitzen ari diren irainez eta delako pertsona horri ematen ari zaien tratuaz jabetuz. Zein ezaugarri duen asmatu ondoren, jasotako tratuaz zein iritzi duen esango du. Nola sentitu diren ikusita, guzti hau lagungarri izan daiteke gutariko bakoitzak bestak zelan hartzen dituen konturatzeko. Guzti horren inguruan bizi izandako egoera edo esperientziak batera jar ditzakete.*

---

## Otoitza

---

*Aita ona..., zeure antz eta irudiko sortu zenuen gizakia, inork irainik eta bidegabekeriarik jasan ez dezan. Fruitu eta aukerez beteriko mundua eman zenigun, eta geure esku utzi zenuen, guztion etxe bihur dezagun. Lan egiteko, maitatzeko, banatzeko, errukitzeko..., gaitasuna eman zenigun, inork behar gorririk izan ez zezan eta inor inoren menpe edo gainetik egon ez zedin.*

*Gaur egun, inoiz baino ekoizpen, aberastasun eta bitarteko dugu eskura eta, hala ere, ez da inoiz izan historiako une honetan baino desberdintasun handiagorik. Barkatu, Aita, erakutsi iezaguzu zuzentasun eta berdintasunezko Erreinua eraikitze bidea. Irakatsi errukia, egia-zaletasuna eta guztion ongizatea. Emaiguzu ausardia aukerarik ez dutenen edo beren duintasuna urratu dietenen eskubideak defendatzeko.*

*Jauna, ez dezagula geure burua besteen gainera maitatu; ez ditzagula bakarrik geure adiskideak edo maite gaituztenak maitatu. Jauna erruki zakizkie munduko pobre guztiei. Eta ez iezaguzu utzi geu bakarrik zorioneko izaten. Senti dezagula mundu osoko behartasun gorriaren larritasuna eta atera gaitzazu norberekeriatik.*

*Emaiguzu, Jauna, errukiz beteriko begirada lur jota dagoenari adorez beteriko hitza esan ahal izateko. Emaiguzu bihotz sentibera zuzentasun eta bakearen alde borrokatzeko. Ez dezagula ahaztu anai-arrebei egiten dieguna zeuri egiten dizugula. Eta, Aita ona, hementxe, gure elkarte txikian bizi dezagula, gure familiak, auzoa, gizartea eta mundua aldatzeko hazi bezala.*

*Amen.*

# SENSITIKORTASUNA

HIRUGARREN ASTEA. 2024ko ABENDUAK 15

## Ebanjelioa

### Lukas 3, 10-18

Jendeak galdetzen zion Joani:

— «Zer egin behar dugu, bada?».

Hark erantzuten zien:

— «Bi soineko dituenak eman diezaiola bat jantzirik ez duenari, eta jatekoa duenak ere bana dezala».

Joan ziren zergalari batzuk ere bataiatzera eta galdetu zioten:

— «Maisu, zer egin behar dugu?».

Hark erantzun zien:

— «Ez kendu inori legezko dena baino gehiago».

Soldaduek ere galdetu zioten:

— «Eta guk, zer egin behar dugu?».

Joanek erantzun zien:

— «Ez atera inori dirurik gogorkeriaz, ezta gezurrezko salakuntzaz ere; konforma zaitzte daukazuen soldatarekin».

Herria zain-zain zegoen eta denak ari ziren pentsatzen Joan ez ote zen Mesias izango.

Joanek, ordea, denen aurrean esan zuen:

— «Nik urez bataiatzen zaituztet, baina badator ni baino ahaltsuago dena, eta ni ez naiz inor haren oinetakoen lokarriak askatzeko ere; horrek Espiritu Santuaz eta suz bataiatuko zaituzte. Eskuan du sardea garia garbitu eta alea bere mandioan jasotzeko; lastoa, berriz, inoiz itzaliko ez den sutan erreko du».

Honela eta beste burubide askoren bidez adierazten zion berri ona herriari.

## Ipuina: Mundua

Kolonbiako kostaldeko Negua herriko gizon bat zeru goienara igo zen. Bueltan, handik goitik giza bizitzari begira egon zela kontatu zuen

Eta su txikien itsasoa garela esan zuen

- *Horixe da mundua -esan zuen- jende pila bat, su txikien itsasoa.*

Lagun bakoitzak bere argiaz distiratzten du beste guztien artean. Ez daude bi su berdin. Su handiak eta su txikiak daude, eta kolore guztietako suak. Su lasaia duen jendea

dago, haizeaz konturatu ere egiten ez dena, eta su eroa duen jendea, airea txinpartaz betetzen duena. Zenbait suk, su memeloak, ez du ez argi egiten ezta erretzen ere; baina beste hainbatek bizitza hainbesteko irrikaz sutzen dute non ezinezkoa den begiak kliskatu gabe haiei begiratzea, eta haiengana hurbiltzen dena piztu egiten da.

---

### Jarduera

---

Aste honetan, sentikortasunaren gaia landuko dugu. Hasteko, gogoeta egingo dugu: bizitzan, besteei zuzendutako ekintza, hitz eta keinu bakoitza guregana itzultzen da, 'frisbee' baten antzera.

Hori azaldu ondoren, gaurko jarduera aurkeztuko diegu: zortearen zazpi korapilodun eskumuturrekoa egingo dugu. Gogoetan esandakoa gogoratu eta zazpi ekintza onen inguruan hausnartzera eroango gaitu. Korapilo bakoitza, ontasunezko ekintza bat izango da. Esploratzaileek eskumuturrekoa jarriko dute eta ikus dezaten bakoitzean, hartutako konpromisoak burura etorriko zaizkie.

